



## TELEKOMUNIKAZIO-SAREETAKO INSTALAZIO IRRATI-ELEKTRIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

### SARRERA

Telekomunikazioen merkatuaren liberalizazioarekin batera, kalitate zerbitzu bat emateko beharrezkoak diren telekomunikazio-elementu guztiak bizkor hazi dira. Telekomunikazio-zerbitzuek, lurraldea zuzenean eraginpean hartzen duen azpiegitura bat eskatzen dute. Zerbitzuak emisio irrati-elektrokoak erabilia ematen dituzten operadoreak ezartzeko prozesua – Zientzia eta Teknologia Ministerioak baimendutakoa– eta merkatuaren hazkunde bizkorra sortzen ari diren disfuntzioak direla eta, beharrezkoa da Toki Administrazioa prozesu honetan esku hartzea.

Zientzia eta Teknologia Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen uztailaren 28ko 1451/2000 Errege Dekretuak, jabari publiko irrati-elektrokoaren plangintza, kudeaketa eta administrazioa proposatzeko, emisio irrati-elektrokoak teknikoki egiaztatzeko, telekomunikazioak kontrolatu eta ikuskatzeko eta arloko zigor-araubidea aplikatzeko eskumena esleitzen dio Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusiari.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege orokorrak, gizakiaren osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen energia produktuen, elementuen edo formen osasun-kontrolari lotutako eskumenak esleitzen dizkio osasun-administrazioari. Halaber, osasun-kontrolerako mugak, azterketa-metodoak eta baldintza teknikoak ezartzeko gaitasuna esleitzen dio.

Udalerriek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25, 26 eta 27. artikuluetan onartutako eskumenei eta hirigintza eta ingurumen araudiari jarraiki esku hartu behar dute garapen honetan.

Ordenantza, beraz, tresna baliagarria da instalazio hauek lizentzia eduki beharrak dakarren kontrolari jarraiki bete beharko dituzten baldintza teknikoak, hirigintzakoak eta ingurumenaren babesari eta segurtasunari lotutakoak ezartzeko.

Ordenantza honetan jasotako udal-erregulazioaren kaltetan izan gabe, jabari irrati-elektroko babesteko baldintzak, emisio irrati-elektrokoen mugak eta emisio irrati-elektroko aurre egiteko osasun-babesari buruzko neurriak ezartzen dituen Araudia onartzen duen irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretua erabat aplikagarria eta nahitaez bete beharrezkoa izango da. Halaber, aplikagarria izango da telekomunikazioei buruzko berariazko araudi sektoriala. Araudi hau, gaur egun, ondokoek osatzen dute funtsean: Telekomunikazioei buruzko apirilaren 24ko 11/98 Lege Orokorrak, otsailaren 27ko 1/98 Errege Lege Dekretuak, 11/98 Legearen II. Titulua garatzeko Araudia onartzen duen uztailaren 24ko 1651/98 Errege Lege Dekretuak, 11/98 Legearen III. Titulua garatzeko Araudia onartzen duen uztailaren 31ko 1736/98 Errege Lege Dekretuak, telekomunikazio-azpiegitura komunei buruzko otsailaren 22ko 279/99 Errege Dekretuak eta era honetako instalazio eta ekipu motei buruzko arau eta zehaztapen teknikoek.

### I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. ARTIKULUA: XEDEA

Ordenantza honen xedea, Amorebieta-Etxanoko udal-mugarteko irrati-komunikazioko estazio irrati-elektrokoen kokapenak eta instalazioak bete beharrezko hirigintza-baldintzak arautzea da, era honetan ezarpena hiritarrentzako hirigintza eta ingurumen berme guztiekin egin dadin eta espazioaren okupazioa eta inguruneak jasan beharrezko eragin bisuala eta ingurumenarekiko ahalik eta txikiak izan daitezkeen.

## **2. ARTIKULUA : APLIKAZIO-ESPARRUA**

2.1 Lurralde-esparruak Amorebieta-Etxanoko udalerrri osoa barne hartzen du.

2.2 Ordenantza hau irrati-komunikazioko estazio irrati-eletriko guztiei aplikatuko zaie. Emisio-ekipoei dagokienez, erradiazio ez-ionizatzaileak kanporatzen dituztenak ere Ordenantza honi lotuko zaizkio.

2.3 Ordenantza honi lotutako instalazioak, indarrean sartzen denetik ezartzen direnak izango dira. Hala ere, beharrezko baldintzak ezarriko dira egun dauden instalazioak ordenantza honetara egokitzen joan daitezcan.

## **3. ARTIKULUA : DEFINIZIOAK**

- Antena: uhin elektromagnetikoen igorpenerako, hartzerako edo igorpen/hartzerako bereziki diseinatuta dagoen irrati-komunikazioko sistema baten elementua.
- Emisio irrati-eletrikoak: uhin elektromagnetiko gisa kanporatutako energia-erradiazioak dira; gida artifizialik gabe hedatzen dira espazioan zehar eta irrati-komunikazioko zerbitzu bat bermatzen duten estazio irrati-eletrikoek sortzen dituzte.
- Masta edo euskarria: antenak eta hauen osagarriak instalatzeko egitura, metalikoa normalean.
- Uhin elektromagnetikoak: eremu elektriko baten eta oszilazioan dagoen eremu magnetiko baten arteko konbinazio harmonikoa; argiaren abiaduran hedatzen dira espazioan zehar.
- Erradiazio ez-ionizatzaileak: emisio irrati-eletriko hauen energia, materia ionizatzeke behar dena baino askoz txikiagoa da.
- Esparrua: telekomunikazio-sare bateko elementuak edo ekipoak ipintzeko kabinak edo armairuak kokatzen direneko espazioa.
- Irradiatze-sistema: kokaleku bakoitzaren ezaugarriari eta beharrei egokitutako erradiazio-sistema bat lortzeko antena-multzo bat da.
- Irrati-komunikazioko estazio irrati-eletrikoa: transmisore edo hargailu bat edo gehiago, edota bien arteko konbinazioa, instalazio osagarriak (hala nola antenatarako masta, esparrua edo bien arteko konbinazioa) eta irrati-komunikazioko zerbitzu bat ziurtatzeko beharrezkoak direnak barne hartuta.
- Irrati-komunikazioko zerbitzua: telekomunikazio-beharren estaldurarako informazioa igortzeko edo hartzeko uhin elektromagnetikoen emisioa eta/edo hartzea dakarrena da.

## **II. TITULUA: INSTALAZIOEN MUGAK**

### **4. ARTIKULUA : IRIZPIDE OROKORRAK**


4.1 - Oro har, irrati-komunikazioko estazio irrati-eletrikoek:

- Merkatuan eskuragarri daudenen artean dimentsio txikiak dituen eta eragin bisual edo ingurumenarekiko eragin txikiena duen teknologia erabili behar dute.
- Ingurunearekin bateragarriak izan behar dute eta, arkitekturari dagokionez, egokiro integratu behar dute.

4.2 - Udala, esparru honetan, gardentasunaren, proportzionaltasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioak babesten saiatuko da.

4.3 – Bereziki, irrati-komunikazioko estazio irrati-eletrikoen kokapenak, ezaugarriek eta funtzionamendu-baldintzek hainbat espazio sentikorren (hala nola ikastetxe, osasun-zentro, ospitale edo parke publikoen) gaineko emisio-mailak txikiagotu behar dituzte ahal den neurrian.





Estalki inklinatuetan jarri behar diren antenak, etxaldearen barruko faldoian jarri beharko dira, eraikuntza etxalde itxi gisakoa bada.

### 5.2 – ANTENAK FATXADETAN

Egoitzazkoak ez diren eraikinetan antenak instalatu ahal izateko, antenen dimentsio txikiek eta kokapen-baldintzek bat etorri beharko dute fatxaden konposizioarekin, fatxaden apaingarri eta dekorazioari kalte egin gabe. Edonola ere, ondoko baldintzak bete beharko dira:

- fatxada osoari buruzko fotomuntaia bat ekarri beharko da.
- kokapena fatxadaren konposizio-erritmoari egokituko zaio.

antenen eta fatxada-planoaren arteko distantzia 30 cm-koa izango da gehienez ere.

### 5.3 – LURREAN EUTSITAKO MASTAK/ANTENAK

5.3.1 – Erregimen Orokorreko (Nekazaritza eta Abelzaintza) eta Basoko lurzoru urbanizaezin, lurzoru produktibo eta Ekipamendu, Azpiegitura eta Komunikazioen Sistema Orokor gisa kalifikatutako lurzoru-eremuetan, lurrean eutsitako antenatarako mastak instalatu ahal izango dira.

5.3.2. - Lurrean eutsitako antenatarako mastek, ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- gehieneko garaiera 25 m-koa izango da orokorrean, 5.5.2. art.ren kasuetan gehitu ahal izango delarik
- paisaia inguruarekin mimetizazio egoki bat izan beharko dute.
- antenaren mastak edo euskarriak eta instalazioetako esparruek, lursailean aplikatu beharreko Hirigintza Araudiak exijitutako atzeraemanguneak errespetatu beharko dituzte.
- instalazio osoan ez da Suteen Aurkako eta Salbamendurako Zerbitzuko ibilgailuen sarbidea eragotziko.

- antenaren masta edo euskarriaren eta hirilur erresidentzialaren mugaren arteko gutxieneko distantzia 100 m-koa izango da
- Masten arteko gutxieneko distantzia 2000 m.takoa izango da.
- Udal Planeamenduko AASSetan zehaztutako Babes Bereziko Eremuetan ez da instalazioa baimenduko, Ingurugiroaren Babeserako 3/98 Lege Orokorrean edo ordezkotaraudian jasotako ingurumen-inpaktuko banakako ebaluazio prozedura eta gainontzeko betebeharrak bete ezean.

#### 5.4 – MASTEN ETA ANTENEN BABESA ETA DEBEKUA

5.4.1 – Eraikinen estalkietako masten kasuan, babes-zilindro bat definituta dago, ardatza masta edo euskarria bera izanik. 10 m-ko erradioa du eta bere garaiera baimendutako gehienekoa izango da mastaren edo euskarriaren oinarritzko puntuan. Zilindroaren barruan ez da bizitzeko espaziorik izango.

5.4.2. – Fatxadetako antenentzat, hurbilen dagoen fatxadako planora (antena dagoena ez dadila izan) 10 m.tako distantzia izango da.

5.4.3. – Antena igorleak ipintzeko gutxieneko garaiera –mastaren edo euskarriaren oinarritik– 2 m-koa izango da.

5.4.4 – Babes eraikinetan ICTren (Telekomunikazio Azpiegitura Komunak) proiektuetan definitutako antenak eta *irradi-amateurrenak* besterik ez dira onartuko.

5.4.5. – Dentsitate txikiko egoitza-eremuetako lursailetan ezingo da masta edo antenarik instalatu, ICTren proiektuan definitutako antenak eta *irradi-amateurrenak* izan ezik.

5.4.6. – Mastek eta antenek ondoko zehaztapenak bete beharko dituzte: Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatutako Lurraldearen Arloko Plana; Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbidearen Lurraldearen Arloko Plana; otsailaren 18ko2/1993 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Errepideei buruzkoa; Defentsa Nazionalerako Interesekoak diren Instalazio Eremuei buruzko Araudia.

5.4.7. – Amorebieta-Etxanoko udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioek jarritako baldintzapenak beteko dira.

5.4.8. – Instalazio guztiek 1066/2001 EDan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Batez ere, indarrean dagoen Erregelamenduan emisio irrati-elektronikoen aurrean osasun babeserako ezarritako neurriei buruzkoa beteko da, "gutxieneko murrizketak" gainditu daitezkeen inguruetan profesionalak ez direnei sarrera mugatzeko seinaleak eta hesia jartzea dagokionean.

#### 5.5. INSTALAZIO BEREZIAK

5.5.1. – Irrati-komunikazioko estazio irrati-elektriko bereziak, irrati-difusio, telebista eta telefoniako jardueri, defentsa, segurtasun publiko eta babes zibileko jardueri eta helburu publikoko bestelako jardueri lotutakoak izango dira.

5.5.1.1. – Instalazio hauek eginkizun horretarako kalifikatutako lur, eraikuntza eta eraikinetan edota Udalaren eta organo edo erakunde eskatzailearen artean hitzartutako beste leku batean kokatu ahal izango dira.

5.5.1.2. – Garatu beharreko jardueren berezitasuna dela eta, Udalari aurkeztu beharreko proiektu teknikoan behar bezala justifikatuta geratu beharko du instalazio horiek proposatutako ezaugarriak eduki beharrak. Horrexegatik, instalazio horien baimena eman aurretik, Udalak teknikari eskudun batek egin beharreko berariazko txosten bat eskatuko du eta, bertan, proposamena justifikatu beharko da. Txostenaren zenbatekoa lizentziaren eskatzailearen kargurakoa izango da. Ez da izango estatuko araudian eskatutako ziurtagiriak bikoiztea, inongo kasutan.

5.5.2. – Lurrean bertan eutsitako antenatarako mastak, hainbat operadorek erabiltzen dituztenean, Ordenantza honen 5.3.2 artikuluan ezarritako garaiera-mugaz salbuetsita geratuko dira. Behar bezala arrazoituta gelditu beharko da beharrezko altueraren proposamena. Horretarako, instalazio hori baimendu baino lehen Udalak teknikari eskudun batek egin beharreko berariazko txosten bat eskatuko du eta, bertan, proposamena justifikatu beharko da. Txostenaren zenbatekoa lizentziaren eskatzailearen kargurakoa izango da. Ez da izango estatuko araudian eskatutako ziurtagiriak bikoiztea, inongo kasutan.

## **6. ARTIKULUA : ESPARRUAK INSTALATZEKO IRIZPIDEAK**

### **6.1 – ESTALKI GAINEAN**

6.1.1 – Debekatuta dago eraikin-mota orotako estalki inklinatueta eutsitako esparruak instalatzea.

6.1.2 – Estalki lauetan eutsitako esparruak instalatzea onartzen da, betiere antenatarako mastak instalatzeko ezarritako mugak betetzen badira (gehieneko garaieraren kasuan izan ezik, hau 3,5 m-koa izango baita).

### **6.2 – ESTALKIPEKO OINETAN**

Edozein motatako erabilerarako diren eraikinen estalkipean kokatutako oinean esparruak instalatu ahal izango dira. Nolanahi ere, Ordenantza honen 10. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira eta eraikinak ez du etxebizitza-erabilera izango.

### **6.3 – SOLAIRU-OINETAN**

Debekatuta dago egoitza-eraikinetako solairu-oinetan esparruak instalatzea, bai eta oina etxebizitzakoaz bestelako erabilera batera destinatuta badago ere.

### **6.4 – BEHE-OINETAN EDO SOTO-OINETAN**

Behe-oinetan edo soto-oinetan esparruak instalatu ahal izango dira. Nolanahi ere, Ordenantza honen 10. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira, beti ere etxebizitza erabilerarik ez badauka.

## **7. ARTIKULUA : KOKATZEKO BALDINTZAK**

7.1 – Mastak instalatzea baimenduta duten eraikin erresidentzialetan, antenatarako masta bakar bat instalatu ahal izango da atari-zenbaki bakoitzeko. Bi mastaren ardatzen proiektzio horizontalen arteko gutxieneko distantzia 40 m-koa izango da. ICTei dagozkien mastak eta irratizale-tuen instalazioak mugapen honetatik salbuetsita daude.

7.2 – Mota honetako antenak onargarriak diren hirilurreko gainontzeko ingurueta, antenak jartzeko mastak pilatzea ekidingo da eta hauek konpartitzeko ahalegina egingo da.

7.3 – Antenak eta euskarria inguratzen dituen zilindro inguratzailaren gehieneko diametroa 120 cm-koa izango da gehienez ere

## **8. ARTIKULUA: KABLEAK ETA HORNIDURA-SAREAK**

8.1.- Birgaikuntza integraleko obren xede ez diren eta ICTrik ez duten eraikinetan, kableen linea barne-patioetatik edo bide publikotik ikusten ez diren eremuetatik joango da.

8.2.- Salbuespen gisa, aurreko puntua betetzeko ezintasuna justifikatu ondoren, linea fatxadatik joan ahal izango da. Bere trazadura erlaitzekin, kanpoko zorrotenekin, zabalkuntza-junturekin edo bestelako elementu jarraitu bertikalekin paralelo joango da eta kanalizazioaren kolorea paramentuari egokituko zaio. Konexio-elementuak eta transmisio-ekipoak ahalik eta txikienak izango dira eta hauen kokapena eta kolorea fatxadaren konposizio-erritmoari egokituta egongo dira.

## **III. TITULUA: INGURUMEN-IRIZPIDEAK**

## **9. ARTIKULUA : BAIMENDUTAKO EMISIO-MAILAK**

9.1 – Emisio irrati-elektrikoetarako esposizioaren mugei dagokienez, administrazio eskudunek emisio irrati-elektrikoen arloan ezartzen dituzten araudiak bete beharko dituzte irrati-komunikazioko estazio irrati-elektrikoek.

9.2 – Aldatzen ez diren bitartean, emisio irrati-elektrikoetarako esposizioaren mugak irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuaren II. Eranskinean agertzen direnak izango dira.

## **10. ARTIKULUA : ESPARRUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK**

10.1 – Esparruen barruko aldera dagokion baimena duenak bakarrik sartu ahal izango du, berarizako araudiak ezarritako segurtasun eta babes pertsonalerako neurriekin, beste inor sartzea eragozteko beharrezko neurriak hartu beharko direlarik.

10.2 – Esparru baten ezaugarri fisikoek posible egiten dutenean, ahaleginak egingo dira operadore desberdinek erabil dezaten.

10.3 – Esparru batetan kokatzen diren instalazioak aztertuko dira. Azterketa honek MINP bezala ezagututako Jardueretan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko beharrezko neurri zuzentzaileak finkatuko ditu.

10.4 - Halaber, beroa espazio mugakideetara ez hedatzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak finkatuko dira.

10.5 - Suteen kontrako babesaren arloan, aplikagarri den berariazko araudiak ezarritako neurri zuzentzaileak hartuko dira.

10.6 - Espektro irrati-elektrikoa erabiltzen duten ekipo eta aparatuek aplikagarri zaizkien baldintza guztiak bete beharko dituzte irailaren 28ko 1066/2001 Errege Dekretuaren 11. artikuluan jasotakoari jarraiki; edozein telekomunikazio-saretako elementu eta ekipoak babesteko sistemek berariazko araudi aplikagarriak ezarritakoa beteko dute.

## **IV. TITULUA: LIZENTZIEN ARAUBIDEA**

### **11. ARTIKULUA : ESTAZIO IRRATI-ELEKTRIKO HARTZAILEAK**

11.1 - Antena hartzaileak instalatzeko baimena izateko, aginduzko obra-lizentzia besterik ez da lortu beharko.

### **12. ARTIKULUA : ESTAZIO IRRATI-ELEKTRIKO IGORLEAK**

12.1 – Legez ezarritako gainerako hirigintza-betebeharrak eta baimenak betetzearen kaltetan izan gabe, estazio irrati-elektriko igorleen instalazioak eta funtzionamenduak udal-lizentzia beharko dute.

12.2 – Artikulu honen xede diren instalazioak, jarduera-lizentzia bideratzeaz salbuetsitako jardueratzat hartuko dira eta, ondorioz, martxoaren 9ko 165/99 Dekretu autonomikoan araututako prozedurari edo hau ordezkatzeko duen araudiari lotuta egongo dira..

12.3 – Lizentzia-eskaerarekin batera dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da. Dokumentazio honen gutxieneko edukia I. Eranskinean ezarrita dago.

12.4 – Udal Zerbitzu Teknikoek dokumentazio teknikoa egiaztatu eta formulatutako alegazioak ikusi ondoren, Udalak neurri osagarriak ezarri ahal izango ditu. Neurri hauek obra-lizentziari erantsiko zaizkio.

12.5 – Instalazioa funtzionatzen jartzeko, instalazioa aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitakoari eta, hala badagokio, exijitzen diren neurri osagarriei egokitzen zaiela jakinarazi

beharko zaio Udalari. Horretarako, I. Eranskinean adierazitako ziurtagiri teknikoak erantsi beharko dira.

12.6. – Lurrean eutsitako antenen mastetarako lizentzia emateko prozeduran, neurri osagarrien ezarpenari buruzko txostena idatzi aurretik beharrezkoa izango da Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean lizentzia horren eskaera argitaratzea azpiegitura hori partekatu ahal izateko, telekomunikazio instalazioen erabilera partekatuari buruzko estatuko araudian aurreikusitako tramiteak jarraituz.

12.7.- Obra-lizentziaren emakidarako, Udalean garapen-programa eguneratua aurkezteko baldintza bete beharko da.

12.8 Antenen masta aldatu edo ordezkatzeko obrak egiteko baimen eskaera beharrezkoa da

## **V. TITULUA: MANTENTZEA ETA KONTROLA**

### **13. ARTIKULUA : INSTALAZIOEN MANTENTZEA**

13.1 – Lizentziaren titularrek, instalazioak segurtasun eta kontserbazio egoera onean mantentzeko betebeharra dute. Subsidiarioki, mantentzearen ardura eraikineko auzo-komunitateak edo instalazioak kokatuta daudeneko finkaren jabeak izango du.

13.2 – Udal-zerbitzuek kontserbazio-egoera txarra dela ikusten badute, lizentziaren titularrei jakinaraziko diete 30 egunetako epean –irregulartasuna jakinarazten denetik kontaktzen hasita– bidezko neurriak har ditzaten. Pertsonentzat edo ondasunentzat arrisku-egoerak daudenean, neurriak berehala hartu beharko dira indarrean dagoen araudiak xedatutakoari jarraiki.

13.3 – Jarduera behin betiko amaitzen bada, lizentziaren titularrak irrati-komunikazioko ekipoak eta elementu osagarriak desmuntatzeko eta kentzeko beharrezkoak diren jarduerak egin beharko ditu lurra eta instalazioaren euskarri gisa erabiltzen den eraikuntza edo eraikina ekipoak instalatu aurreko egoera berean uzteko.

### **14. ARTIKULUA : ARRISKUAK ASEGURATZEA**

Lizentzia eskatzen duten operadoreak ordezkutzen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek, irrati-komunikazioko estazio irrati-elektrokoak ezartzeak ondasunei edo pertsoneri eragindako kalteei behar bezala erantzutea ahalbidetuko duten aseguratze-tresnen titulartasuna justifikatu beharko dute.

### **15. ARTIKULUA : KONTROLA**

Urtero Udalari agiri bat emango zaio eta bertan dauden instalazioetan izan diren aldaketarik garrantzitsuenak jasoko dira (antena kopurua gehitzea, antenen mastetan, esparruan dauden ekipoen gehikuntza, ...). Era berean, teknikari eskudun batek egin beharko duen eta lizentziaren eta araudi orokor aplikagarriaren baldintzak betetzen direla ziurtatuko duen txosten bat aurkeztu beharko da.

## **VI. TITULUA: ZIGOR ARAUBIDEA**

### **16. ARTIKULUA : ARAUBIDE APLIKAGARRIA**

Erregulazio honen ondoriozko arau-haustek hirigintza-diziplinaren arloan eta ingurumenaren arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki zigortuko dira.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**LEHENA – ORDENANTZA HAU INDARREAN SARTZEAN MARTXAN DIREN INSTALAZIOAK ETA BAIMENIK EZ DUTENAK**

- Bidezkoak diren zigorren kaltetan izan gabe, dagokion baimenik gabe martxan dauden estazio irrati-elektrokoek epe bat izango dute, gehinez jota urte biko, legezatzeko.
- Indarrean dagoen araudi sektoriala eta Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzeagatik legezatu ezin bada, instalazioa itxi egin beharko da interesatuari entzun ondoren.

### **BIGARRENA – LIZENTZIA DUTEN INSTALAZIOAK**

Ordenantza hau indarrean sartzen den unean udal-lizentzia duten telekomunikazio irrati-elektrokoen instalazioei dagokienez, Udalak 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioen Zerbitzu Araudiak 16. art.an ezarritakoari jarraiki jardun ahal izango du

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **LEHENA – GARAPEN-PROGRAMAREN BERRI EMATEA**

Kokagune bat instalatzeko edo lekuz aldatzeko asmoa duen telekomunikazio-operadore bakoitzak edo obrak egiteko baimena eskatu behar duenean, bere garapen-programa eguneratua aurkeztu beharko du (Amorebieta-Etxanoko udal-mugarterako aurreikusitakoa). Hau instalazio berriak jartzeko baimen eskaria aurkeztu baino baino bi hilabete lehenago egin beharko da gutxienez.

Dokumentu honek, nahitaez, ezarrita dagoen egungo instalazio-sarea eta udal-mugarterako aurreikusitako instalazioak bildu beharko ditu.

Telekomunikazio-operadoreek baterako garapen-planak aurkeztu ahal izango dituzte eremu jakin bati estaldura emateko, bai etorkizuneko teknologien kasuan, bai sarea oraindik zabaldu gabe duten egungoen kasuan.

Programak ondoko elementuak zehaztu beharko ditu:

- Egindako zerbitzuen eta erabilitako teknologien deskribapena.
- Kokapen alternatiboen eta proposatutakoen kartografia (UTM koordinatuekin).
- Kokapen bakoitzaren estaldura gunea.

#### **BIGARRENA – ANTENEN ERREGISTROA**

Sei hilabeteko epean –Ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera kontatzen hasita–, Udalak Erregistro Berezi bat sortuko du Amorebieta-Etxanoko udal-mugarterako telekomunikazio-zerbitzuak ematen dituzten eta espektror irrati-elektrokoa erabiltzen duten instalazio guztiak inskribatuko dira, bai eta gerta daitezkeen aldaketak ere.

**HIRUGARRENA** – Estazio irrati-elektrokoak jartzean, ez da ordaindu beharko burutuko den jarduerarengatik udal tasarik.

### **AZKEN XEDAPENA**

#### **LEHENA – INDARREAN SARTZEA**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluetan ezarritakoari jarraiki, Ordenantza hau Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egunetara sartuko da indarrean, Udalbatzak onartu ondoren.

### **I. ERANSKINA:**

#### **ESTAZIO IRRATIELEKTROKOEN INSTALAZIO-ETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA**

## 1. INSTALAZIOEN ZIURTAGIRI TEKNIKOAK

A) Obra-lizentziaren eskaerarekin batera aurkeztu beharreko ziurtagiriak:

- Teknikari eskudun batek izenpetuko duen eta eraikinak instalazioaren gainkarga onar dezakeela egiaztatuko duen ziurtagiria; egitura sendotzeko edozein proiektu-mota egin behar izanez gero, proiektu hau ere teknikari eskudun batek izenpetu beharko du.
- Irailaren 28ko 1066/2.001 E.D. (8.1; 8.2; 8.6; 8.7 artikulua) eta urtarrilaren 11ko CTE/23/2002 Agindua (3.1. puntua) betetzen direla egiaztatzen duten agiriak

B) Obrak amaitu ondoren eta instalazioa emititzen jarri aurretik aurkeztu beharreko ziurtagiriak:

- Instalazio elektrikoak Tentsio Baxuko Araudi Elektroteknikoan (Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Aldizkaria) ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- 1066/2.001 E.D. (6; 9.1; 9.2; 11; 12 artikulua) betetzen dela egiaztatzen duten agiriak: Zientzia eta Teknologia Ministerioaren ziurtagiria.

## 2. PROIEKTUAREN EDUKIA

Aurkeztu beharreko proiektuak teknikari eskudunak idatziak eta dagokion kolegio profesionalak zigilatutako egon beharko dira.

- Enpresa eskatzailearen datuak:
  - § Sozietatearen izena eta IFK
    - Helbidea osorik
    - Legezko ordezkariak
- Kokagunearen datuak:
  - § Kokagunea identifikatzea.
    - Indarrean dagoen hirigintza planeamenduaren arabera instalazioa dagoen lurzorua sailkapen edo kalifikazioa.
    - Azpiegitura beste operadore batzuk erabil dezaketela azaltzen duen justifikazio teknikoak.
- Instalazioaren obra proiektuaren memoria, gutxienez ondoko informazio jasotzen duena:
  - § Instalazioaren oinarriko deskribapena, kokagunearen egokitasunarena, Arau Subsidiarioen eta Ordenantza honen baldintzak betetzearena.
    - Instalazioen egonkortasuna (egitura-ikuspegitik, euskarriak edo antena mastak, eta eraikinarekiko finkapenaren ikuspegitik) justifikatuko duten kalkuluak eta eraikuntza-planoak.
    - Instalazio eta eraikuntza sistemari dagokionez, eraikuntza deskribapena eta sektoreko araudia betetzea.
    - Mastan jarritako ekipoak identifikatzea: marka modelua, neurriak, funtzioa, ...
    - Esparruan jarritako ekipoak identifikatzea: marka modelua, neurriak, funtzioa, ...

- Eragin bisuala eta ingurumenarekikoa ahalik eta gehien txikiagotzeko teknologiarik onena (ezarri beharreko ekipoen tipologiari eta ezaugarriei dagokienez) erabiltzearen justifikazioa.
  - Jatorri atmosferikoko deskarga elektrikoek babesteko eta beste instalazio batzuekiko interferentzia elektromagnetikoak saihesteko hartutako neurri zuzentzaileen deskribapena eta justifikazioa.
- Instalazio planoak:
    - § Mastaren kokapen-planoa UTM koordinatuetan adierazia, 1:2000ko kartografian (gehienez ere).
    - Eraikin mugakideekiko kokapen erlatiboa adieraziko duen plano, 1:200 eskalan egina.
    - Instalatu behar diren ekipo guztiak identifikatzen dituen mastaren goiko eta aurreko plano.
    - Instalatu behar diren ekipo guztiak identifikatzen dituen esparruaren goiko eta aurreko plano.
    - Egin asmo den instalazio osoa jasotzeko eskala nahikoan egindako planoak.
  - Burutzapenerako baldintza
    - Burutu beharreko obraren aurrekontu zehaztua.
    - Segurtasun eta osasunari buruzko azterketa.
  - Eragin bisuala justifikatuko duen dokumentazio fotografikoa, grafikoa eta idatzia. Dokumentazio honek argi eta garbi adieraziko du instalazioak finkarekiko zein kokaleku izango duen: ezarriko deneko ingurunearen deskribapena, azalera, forma, materialak eta bestelako ezaugarriak. Halaber, oinezkoaren ikuspegitik izango duen eragin bisualaren simulazio grafikoa aurkeztu beharko da.

### 3. BESTELAKO AGIRIAK

- Instalazioa segurtasun-baldintza ezin hobeetan mantentzeko adierazpena edo konpromisoa
- Estazio irrati-elektrikoak ezartzeagatik pertsona edo ondasunek izan ditzaketen kalteei egoki erantzutea ahalbiderazten duten aseguru instrumentuen titulartasunaren justifikazioa.

Amorebieta-Etxanon, 2002ko abuztuaren 13an

ALKATEAK,